



OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Irakokizun Zenbakia: **32**
Nork Aurkeztu Du: **Lezamako Udala**

Sugerencia N°: **32**
Presentada por: **Ayuntamiento de Lezama**

Aurkezpen data: **2022/02/02**

Fecha de presentación: **02/02/2022**

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Hiri-hazkundearen Perimetroari (HPP) dagokionez, planoak eransten dira, doituak izateko, LPParen antolamendu-arauen 56. artikuluko irizpideekin bat etorriz.

HPParen mugaketa berri bat proposatzen da, 7,1 ha-ko eremu bat barne hartzen duena eta 5 eta 18,5 ha-ko bi eremu kanpo uzten dituen.

2. Udalerriko jarduera ekonomikoetarako lurzoruei dagokionez, ohartarazten da EAEJANen 2018ko otsailaren 12ko Epaia deuseztat jo zuela Lezamako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, eta, beraz, 1998ko Arau Subsidiarioak berriro indarrean daudela.

Horrek esan nahi du LPParen abiapuntua aldatzen dela udal-plangintzari dagokionez, eta La Cruz eta Ugarte sektoreetako eremuak lurzoru urbanizaezinak direla; horrek esan nahi du planoak eta memoria zuzendu behar direla, lurzoru urbanizagarri gisa ez konputatzeko.

Baina iradokizunak LPParen garapen berrien proposamen gisa kontuan hartzea proposatzen du, LPParen antolamendu-arauen 71. artikuluan txertatuz eta 69.

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. En relación con el Perímetro de Crecimiento Urbano (PCU), se adjuntan planos para su ajuste, de acuerdo con los criterios del artículo 56 de las Normas de Ordenación del PTP.

Se propone una nueva delimitación del PCU que incluye un área de 7,1 ha y excluye dos áreas de 5 y 18,5 ha.

2. Respecto a los suelos de actividades económicas del municipio, se advierte de que la Sentencia del TSJPV de 12 de febrero de 2018 declaró nulo el Plan General de Ordenación Urbana de Lezama y con ello recobran vigencia las Normas Subsidiarias de 1998.

Esto significa que se altera el punto de partida del PTP en relación con el planeamiento municipal y que los ámbitos de los sectores de La Cruz y Ugarte son suelos no urbanizables, lo que supone la necesaria corrección en los planos y en la Memoria para no computarlos como suelos urbanizables.

En cambio, la sugerencia propone tenerlos en cuenta como propuesta de nuevos desarrollos propia del PTP, insertándola en el artículo 71 de las Normas de Ordenación del PTP y





artikuluari ezarritako kuantifikazioa berregokituz.

Horretarako, zenbait plano erantsi dira, zeinetan eremu horiek mugatzeko proposamena jasota dagoen, plangintzaren etorkizuneko berrikuspenari begira.

reajustando la cuantificación establecida en el artículo 69.

Para ello se adjuntan varios planos con la propuesta de delimitación de esos ámbitos, de cara a la futura nueva revisión del planeamiento.

3. Uriarte Safynvest SL enpresa hartzen duen lurzoru urbanizaezinari dagokionez, hiri-lurzoru gisa birsailkatu behar dela uste da, arrazoi hauengatik:

- 80ko hamarkadaz geroztik, jarduera ekonomiko bat dago martxan.

- HPParen barruan dago, eta bi hiri-lurzoruren artean kokatuta, indarrean den 1988ko plangintzaren arabera (berreskuratua). Horretarako, kalifikazioan enpresarekin mugakide diren bi lurzoru-zerrenda ere sartzea proposatzen da.

- Planteatutako hiri-bilbearekiko lotura agerikoa da.

Horretarako, eskatzen da LPPak behar besteko euskarria eman dezala Lezamako HAPO berriak Uriarteko lurzorua hiri-lurzoru industrial gisa birsailkatzeko, egungo errealitatera egokituta.

3. Respecto al suelo no urbanizable que acoge a la empresa Uriarte Safynvest S.L., se considera que debe reclasificarse como urbano porque:

- Desde los años 80 hay una actividad económica en marcha.

- Se encuentra dentro del PCU, y ubicado entre dos suelos urbanos según el vigente planeamiento recobrado de 1988. Para ello se propone incluir también en la calificación dos franjas de suelo colindantes con la empresa.

- La vinculación con la trama urbana planteada es evidente.

A tal efecto, se solicita que el PTP dé el soporte suficiente para que el nuevo PGOU de Lezama proceda a reclasificar el suelo de Uriarte como urbano industrial, ajustándose a la realidad existente.

4. Hasieran onetsitako LPPan erabilitako Lezamako lurzoruaren sailkapen- eta kategorizazio-datuak eguneratu ez izanari buruz EH BILDU udal-taldeak egindako oharra jasotzen dira iradokizunean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren ondorioz. Epai horrek balio gabetzat jo zuen Lezamako HAPOa, eta indarrean utzi zituen 1998ko Arau Subsidiarioak. Gainera, jakinarazi da sailkapen eta kategorizazio zuzenak Udalplan 2020n jasotzen direla, eta eskatzen da idazketa-taldeak zuzenketa egokiak egin ditzala dokumentuan.

4. Se recogen en la sugerencia las apreciaciones del grupo municipal de EH BILDU sobre la falta de actualización de los datos de clasificación y categorización del suelo de Lezama utilizados en el PTP aprobado inicialmente, por efecto de la Sentencia del TSJPV que declaró nulo el PGOU de Lezama y dejó vigentes las Normas Subsidiarias de 1998. Además, se informa que la clasificación y categorización correctas se recogen en Udalplan 2020 y se reclama que el equipo redactor realice las correcciones oportunas en el documento.

IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. Onartu egin da LPPko Hiri-hazkundearen Perimetroaren mugaketa zuzentzea, iradokizunak proposatzen duen zentzuan.

2. Udal-plangintzan izandako aldaketak ikusita, onartzen da La Cruz eta Ugarte eremuetan kokatutako lurzoruen sailkapena zuzendu behar dela LPPren abiapuntu gisa.

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. Se acepta corregir la delimitación del Perímetro de Crecimiento Urbano (PCU) del PTP en el sentido que propone la sugerencia.

2. A la vista de los cambios producidos en el planeamiento municipal, se admite la necesidad de corregir, como punto de partida del PTP, la clasificación de los suelos situados en las áreas de La Cruz y Ugarte.





Hori esanda, adierazi behar da plangintzaren hurrengo berrikuspenean Lezamako Udalak La Cruz eta Ugarte eremuak jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri gisa birsailkatzeko aukera izango duela, deuseztatu berri den HAPOan egin zuen bezala eta iradokizunean proposatzen duenez. Beraz, gaur egun indarra galdu duenak berriz ere indarra izan lezake.

LPParen ikuspegitik, modu orekatuan bateratu behar dira lurzoru urbanizaezinaren babesa eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintza nahikoa izateko helburu estrategikoa, LAGen 12. artikuluan eta Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko LPSan xedatutakoaren arabera. Eremu funtzionalean baliabide mugatua denez, lurzoru mota horren premia ikuspegi metropolitarrak batetik aztertu behar da, Lezamako udal-irizpideaz harago.

Hori dela eta, ontzat jotzen da Lezamako Udalak lursail horiek jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarri gisa birsailkatzea berriz planteatzeko duen ekimena, dagoeneko sailkatuta dauden eta beste batzuk baino egokiagoak diren lurzoruen ondoan baitaude.

Azaldutako guztiagatik, LPPa behin-behinean onartzeko dokumentuaren hurrengo fasean, Lezamako lurzoruen sailkapena eguneratuko da, eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruen kuantifikazioan eskuragarri dagoen lurzoru hutsaren dagokion murrizketa erregistratuko da. Aldi berean, La Cruz eta Ugarte eremuak etorkizuneko garapen berri gisa aipatuko dira.

3. Uriarte Safynvest SL enpresa hartzen duen lurzoruari dagokionez, argitu behar da lurzoruen sailkapena udalaren eskumena dela.

Iradokizunean aipatzen den lurzorua LPPk mugatutako Hiri Hazkuntzako Perimeroaren barruan dago; beraz, Lezamako Udalak egokitzen jotzen duen sailkapena proposatu ahal izango du bere plangintzaren berrikuspenean, hirigintza-legeriaren esparruan dituen eskumenak baliatuz.

Gai hori Udalaren, BFAko Iraunkortasun Sailaren eta BFAko Lurralde Kohesiorako Zuzendariordetzaren artean aztertzen ari

Dicho esto, hay que señalar que en la próxima revisión de su planeamiento el Ayuntamiento de Lezama tendrá la posibilidad de volver a plantear la reclasificación de los ámbitos de La Cruz y de Ugarte como suelos urbanizables para actividades económicas, como ya hizo en el PGOU recién anulado y propone en la sugerencia. Así pues, lo que hoy ha perdido vigencia podría volver a tenerla.

Desde el punto de vista del PTP, debe conciliarse de manera equilibrada la protección del suelo no urbanizable con el objetivo estratégico de disponer de una oferta suficiente de suelo para actividades económicas, de acuerdo con lo previsto en el artículo 12 de las DOT y en el PTS de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas. Se trata de un recurso limitado en el área funcional, de ahí que la necesidad de este tipo de suelo deba contemplarse desde una perspectiva metropolitana, más allá del criterio municipal de Lezama.

Por ello se considera favorablemente la iniciativa del Ayuntamiento de Lezama de volver a plantear la reclasificación de esos terrenos como urbanizables para actividades económicas, al tratarse de suelos contiguos a otros ya clasificados y que resultan más adecuados que otros posibles.

Por todo lo expuesto, en la próxima fase del documento de aprobación provisional del PTP se actualizará la clasificación de los suelos de Lezama y se registrará la correspondiente disminución del suelo vacante disponible en la cuantificación de los suelos de actividades económicas. En paralelo, se mencionarán los ámbitos de La Cruz y Ugarte como posibles nuevos desarrollos futuros.

3. Respecto al suelo que acoge a la empresa Uriarte Safynvest S.L., debe aclararse que la clasificación del suelo es competencia municipal.

El suelo al que hace referencia la sugerencia se encuentra dentro del PCU delimitado por el PTP, por lo que en la revisión de su planeamiento el Ayuntamiento de Lezama podrá proponer la clasificación que considere adecuada, en el ejercicio de sus competencias en el marco de la legislación urbanística.

Dado que este tema se está analizando entre el Ayuntamiento, el Departamento de Sostenibilidad de la DFB y la Subdirección de





denez, erabaki-eremu horretara igortzen da udal-plangintzarako ebazpen egokiena.

Cohesión Territorial de la DFB, se remite a ese ámbito de decisión la resolución más conveniente para el planeamiento municipal.

4. LPParen behin-behineko onespeneren dokumentuan, eguneratu egingo dira indarrean dagoen udal-plangintzari buruzko datu-iturriak, zuzentzeko EH BILDUren udal-taldeak adierazi eta iradokizunean jasotako planoetako sailkapen- eta kategorizazio-akatsak.

4. En el documento de aprobación provisional del PTP se actualizarán las fuentes de datos sobre el planeamiento municipal, para corregir los errores de clasificación y categorización puestos de manifiesto por el grupo municipal de EH BILDU y recogidos en la sugerencia.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

